



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

GIZARTE ONGIZATE BATZORDEKO AKTA

Eguna: 2013-12-12

Hasiera-amaiera: 18:30 – 20:20

Tokia: Batzar-gela 1

Bertaratuak: Gizarte-Ongizateko batzorde burua: Rakel Elu

BILDUKo kidea : Juan Ramon Iriondo

Antiguako Ama: Rosario Ducay

Rosario Urrosolo

GORABIDE: Jose Ibarloza

Inmaculada Laka

Begoña Zelaia

Denon artean: Juanjo Bedialauneta eta Juana Cabrera

Aldez aurretik abisatu dutenak ezin direla etorri:

M^a Jesus Ibarloza (Minbizi aurre)

Nekane Landaribar (ADEMBI)

Aztergaiak:

- 1.- Aurreko aktaren onarpena
- 2.- Amankomunatuta ditugun gizarte zerbitzuak: proposamen erabakia
- 3- Eskaria-galderak

Esandakoak:

1.- Aurreko batzarreko akta, 2013ko azaroaren 25koa, onartu da.

Batzordeburuak azaltzen du batzar hau ostegun honetan ipini dela, amankomunazgoari aurkeztu nahi dioten proposamena osoko bilkuratik pasatzeko, aurretik batzordean aztertu behar delako.

Arratsaldeko 19:45etan M^a Dolores Etxano sartu da batzarrean.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

2.- Batzordeburuak , eranskinean agertzen diren agirien azalpenak ematen ditu eta proposamen hau planteatzen dutela dio, uste dutelako 12/2008 abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuen legeak bere muinean esaten duenari gehiago egokitu behar direlako gaur egun ditugun zerbitzuak. Gaur egun egiturari amankomunatuta ditugun zenbait zerbitzuren estruktura, aurreko legeari gehiago dagokio gaur egungoari baino.

Beraz, Udalek derrigorrean bereak dituzten kompetentziak aztertuta alde batetik eta beroien artean zeintzuk ditugun amankomunatuta ikusita, Udalaren kompetentziak ez direla betetzen bere osotasunean.

22. artikuluko ondorengo lau zerbitzuak dira derrigorrean udalek bete behar dituztenak eta bere eskumenekoak direnak:

1.2. Etxez-etxeko laguntza-zerbitzua, ematen ari garena hau ere; hala ere, zerbitzua berraztertzeke premia ikusten da, Ondarroako udalak jartzen duen kuotarekin alderatuta, izugarritzko itxaron zerrenda dagoela ikusten baita,

1.3. Gizarte eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, ez dugu ematen bere osotasunean. Zerbitzu hau, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako talde multidisziplinarrak koordinatuta eta herritar guztientzat zabaldua egon beharko lukeen zerbitzua da baina gaur egun, EISE baten bitartez, arriskuan dauden adingabeak babesteko, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko (42.6) ematen da baina ez premia honen beharrean dauden gainerako adin guztietako herritarrentzat.

1.4. Zainduz programa foral bat baino ez da ematen gaur egun zerbitzu honen izenean eta hau ere bere osotasunean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik eman behar dena da. Menpekotasuna duten pertsonak zaintzen dauden zaintzaileei laguntza emateko zerbitzua izan behar du, bakarkako zein taldekako lana burutuko duena.

Koordinazio sozio-sanitarioa ere bultzatzea komeni dela, Osakidetzak eskaintzen dituen zerbitzuak probetxatuz (Osasun eskola adib).

Bestalde, gaur egun, esan bezala Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Udalek derrigorrean bete beharreko kompetentzia izanik eta amankomunatuta daukagun Gizarte Zerbitzuak deituriko batzordearen barruko atalik garrantzitsuenak, 7 gara zerbitzu hau amankomunean aurrera daroagunak eta ordaintzen dugunak eta batzorde horretako gainerako beste 3 udalerrik Lea



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Ibarrako amankomunazgoan daroate, bertan ordaintzen dutelarik zerbitzu hau.

Bakoitzak zein zerbitzu duen bereizteko eta aurrekontuak egitekorakoan bakoitzaren gastuak zein diru laguntzak hobeto bereizteko eta herri bakoitzaren premia bereziei erantzun zuzenagoa eman ahal izateko, plangintzaren ardura udalak berreskuratzea eskatu nahi zaio Ondarroako udaleko osoko bilkurari.

2013an udalek aportatutako kuotak hartuta erreferentzi lez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak nahi dira errefortzatu, amankomunazgoko xedean batez ere aurreko legean oinarritutako egituran lanean dauden langile zein teknikariak aipatutako Unitateetara hurbilduz, Gizarte Langileei ahal denik eta bete behar administrari gehienak kendu eta eurei dagokien berariazko lana indartu eta horrela, ahal den heinean, oinarrizko gizarte-zerbitzua, arreta-unitate polibalentea eta disiplina askotarikoa gauzatu.

Herriak plangintzaren ardura bere baitan hartzearen arrazoia zera dela dio batzordeburuak : herriko eragileak direla udalarekin batera herriko premiak hurbiletik hobekien ezagutzen dituztenak eta amankomunatuta ditugun zerbitzuez gain, ongizate arloaren barruan beste hainbat ekimen aurrera daroatenak.

Herri bakoitzak dituen baliabideak kontuan hartuta alde batetik eta dituen premiak bestetik (nagusiak, etorkinak, lan gabezia daudenak, herriko talde bakoitzarenak...) herriak berak ere izan behar duela bere gizarte zerbitzuen plangintzan parte zuzena duena eta ez duela uste zuzena denik konpetentzia guzti hori amankomunazgoari delegatzea.

Markinako osoko bilkuran ere landu da antzerako proposamena eta, Ondarroa eta Lekeitioko osoko bilkuretara ere eraman nahi da.

Batzordeburuak irakurtzen du osoko bilkurara eraman nahi den akordio proposamena eta agertzen du EAJrekin adostu nahi dutela.

Bere aldetik, EAJko ordezkariak, M^a Doloresek , galdetzen du ia ezer gertatu den edo deskofidantzarik badago norbaitekin eta proposamena zergatik ez den onartzen amankomunazgoan.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Batzordeburuak erantzun dio, EDEk aurkeztutako plan estrategikoaren zirriboroan gauzak berdintsu agertzen direla eta estrategia hain zuzen ere, 2008ko Gizarte Zerbitzuen legeak bere oinarrian ezartzen duen ereduari hurbiltzea izan beharko litzatekeela.

Juan Ramonek ere funtzionamendu berdintsua planteatu dela plan proposamen horretan dio eta beste era batetan ahal direla gauzak egin.

Esaten du plan estrategiko proposamen horretan gizarte zerbitzuaren antolakuntzari buruz ez dagoela berri askorik eta herri bakoitzak esan behar duela zer nahi duen eta bere plangintza egin.

7.40etan, Begoña Zelaia irten da.

M^a Doloresek galdetzen du ia konkretuki ze proposamen eraman den amankomunazgora eta ez den onartu.

Rakelek dio Lea Artibai amankomunazgoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako berariazko zerbitzuak 7 herriren artean ordaintzen direla eta ez 10en artean. 10ek amankomunatuta dituzten zerbitzuak ez daudela Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen barruan baizik eta Ongizate eremu zabalaren barruan. Hala ere, aurreko legearen estrukturan jarraitzen dela gaur arte eta eskumenak nahasten direlako argitu nahi dela zer daukagun amankomunatuta, nortzuk eta nola.

Herri bakoitzaren subiranotasuna kontuan hartuta, bidezkoa ikusten duela herriko osoko bilkurak gaur egun bidezkoena ikusten duena onartzea. Agertzen du ere lantzen ari diren proposamen berriaren atzean lan haundia dagoela, ez dela politizatu nahi baizik eta teknikoki ekarpenak egin eta langileekin nahi dutela proposamen berria kontrastatu.

Batzorde honek herriko proposamenak eta eskaerak plangintza lez bideratu ahal izateko eskumena beretzat hartzeko eskaera egitea onartzen badu, Osoko Bilkurara eraman eta bertan hartuko den erabakia baiezkoa izatekotan, Amankomunazgora bidaliko dela onartutakoaren berri emateko eta bertako osoko bilkurara eramateko.

Plangintza eskumena eskuratzearen eskaerarekin batera, txosten tekniko proposamen berriaren ekarpena ere eraman nahi dela.



ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

Hau dena aurrera eramateko hobeto errebisatuko direla plangintza berriko gastuak eta aurrekontu berria. Herriko hurrengo batzorderako proposamena bidaltzeko ahalegina egingo dutela.

Batzordekideei galdetu zaie aurkeztutako proposamenekin bat badatoz eta beraien adostasuna agertzen dute; M^a Doloresek dio bere taldean agertuko duela, baina bere ustetan amankomunazgotik ere berdin ahal dela planifikatu eta denen artean adostu antolakuntza eta zer nahi den egin.

Inmak galdetzen du amankomunazgoan ea dagoen beste zerbitzu edo arlorik eta baietz erantzun zaio, Ingurugune arloa dela eta akordioetara heldu direla herri bakoitzarekin hondakinen kudeaketari dagokionez, nahiz eta han ere herri bakoitzak berea planifikatu duen.

3.- Janari bilketakoek “Denon Artean” dute izena eta beraien lana aurrera doa, premia larriekin bizi diren herritarrekin lan handia egiten dutelarik.

Batzarra 20:20an bukatu da.

Ondarroa 2014ko otsailaren 20a